

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2022/11/09

Saila	Laburpena
Zerbitzuak	Miraflores auzoko bizilagunek eskatu dute bete daitezela 2022ko martxoan egindako bileran hartu ziren konpromisoak: errepideak eta arekak mantentzea, sasiak eta hustubideak garbitzea, edukiontziak hobetu eta berritzea, bai eta argiak konpontzea ere.
Zerbitzuak	Udalak auzoan lan egin dezala eskatu du Mirafloreseko auzokide batek, pandemiaren ostean, jende asko igarotzen baita bertatik.
Zerbitzuak	Bizilagun batek, San Andreseko garaje-plaza baten jabea, kexa adierazi du karea jausi zitzaiola-eta; eskatzen du beste plaza bat emateko.
Zerbitzuak	Bizilagun batek salatu du arratoi asko irteten direla Legarrera igotzeko arrapalan dauden jardinetatik.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek salatu du Arratebideko tailer mekanikoaren espaloi inguruan beti daudela kotxe asko aparkatuta, eta horrek oinezkoen igarobidea eragozten duela.
Hirigintza	Bizilagun batek eskatu du San Andres Egoitzaren azpian Udalak dituen aparkaleku-plazak denen esku jartzeko.
Obrak	Bizilagun batek adierazi du Legarren jendea elkarrekin egoteko dagoen leku bakarra plaza iritsezin bat dela. Eskatu du plaza horren irisgarritasuna hobetzeko eta aisialdiko toki gehiago sortzeko, eta, toki horietan landaretza gehiago jartzeko.
Hirigintza	Herritar batek eskatu du Pitxargaineko bide zaharra berrreskuratzeko, hala, Arratebide eta Eibarko erdialdeko lotura berreskuratu ahal izateko.
Zerbitzuak	Kexa adierazi du Arratebide kaleko 20 A eta 20 B zenbakien arteko eskailerak zartatuta eta goroldioz beteta daudelako, bereziki, bigarren eskailera-zatitik aurrera.
Hirigintza	Iradoki du lursail gehiago eros daitezkeela arbolak eta landare autoktonoak landatzeko, eta, hala, eukaliptoak landatzea eragozteko.
Zerbitzuak	Eskatu du begiratoki bat eta banku batzuk jartzeko Arrateko gurutzean.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2022/11/09

Saila	Laburpena
Hirigintza	Salatu du jarraitzen dutela tiro-pitxoi lehiaketa egiten, Arraten.
Hirigintza	Eskatu du plater-tiroketan geratzen diren kartutxo-hondarrak jasotzeko.
Obrak	Eskatu dute begiratoki bat jartzeko 5 Km-aren eta Arrateren arteko zatian.
Obrak/ Udaltzaingoa	Salatu du ibilgailuak abiada bizian pasatzen direla Itzioren eta Mirafloreseko sarreraren artean. Eskatu du bazterbide bat eraikitzeko oinezkoak babesteko eta baita banku batzuk jartzeko ere.
Zerbitzuak	Eskatu du sasiak kentzea Bildosolaneko parkean.
Obrak	Bizilagun batek eskatu du zebra-bide bat egitea Itzioko parkearen parean.
Alkatetza	Herritar batek eskatu du Torrekuan autobus-geltoki intermodal bat egitea.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du fatxada pribatuetatik grafitiak kentzeko eskabideei kasu egiteko.
Hirigintza	Kexa adierazi du Ardantzan eraikiko den aparkaleku berriagatik. Adierazi duenez, aparkaleku horrekin, kendu egingo da toki horretan dagoen berdegune bakarra.
Obrak	Galdetu du ea zenbat igogailu egingo diren Mekolan eta nola sartu behar diren garajeetara urbanizatu bitartean.
Zerbitzuak	Batek eskatu du sasoiko landareak berriz ere aprobetxatu daitezela.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2022/11/09

Saila	Laburpena
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du konpon ditzatela Arratebidetik Mekolara bitarteko eskailerak. Dioenez, arriskutsu daude eta estuak eta ilunak dira.